


Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko abuztuaren 5a / IV. urtea / 138. zenbakia



1953ko maiatzaren 21ean ospatu zen Bedaioko jaietan, ezkerretik eskuinera: Joxe Gurbillaundikoa, Manuel Gorostegi Bedaiobitartekoa, Juan Antonio Sarasola Zumizketako txanbolin sonatua, Gurbilla Txikiko Inozentzio eta Pako Bedaiobitartekoa. Behean Gurbillaundi, Gipuzkoan dagoen baserri handiena. Hementxe jaio eta bizi zen Juan Antonio Zubillaga.

Bazen behin Mugiroko bentara ardoketara joan zen bedaioarra, festak heldu zirela eta.

Hiru pegar ardo pagatu bertan, zurrut egin arima alaitzeko, eta buelta hartu zuen herriruntz, astoaren gainean. Pagolletako gainean, baina, topo egin zioten goardia zibilek eta Gorritiko danbolin sonatuak, astoa lapurtua zela esanez. Horren kariatz, zenbait egun giltzapeturik eman zituen bedaioarrak Almandozko kartzelan, kulparik gabe, astoa berea baitzen. Bertso famatuak egin ziren kontuak azaltzen, eta hortik Gorritiko danbolinaren fama. Herri literaturak sorgindurik, pasadizo hauek eta bi pertsonaien bizitzak arakatu ditu Patziku Perurena idazle goizuetarrak, eta hona ekarri. Danbolin kontuak, bertso kontuak, famili kontuak... herri kontuak, finean.

Danbolin kontuak

Metropoli forala

FELIPE RIUS



Geltokia

Urrutiko tren geltoki batean ulertu nuen aspaldian zerua eta infernua elkarren ondoan daudela: dirua kendu ondoren labana sartzen badizute erraietan infernua zaude; vodka trago batera gonbidatzen bazaituzte, berriz, zerura iritsi zaitezke minutu gutxi batzutan. Geltokiak mundutik at geratzen dira goizaldeetan, mundu sekretu bat osatzen dute eta kanpoan taxistak ateratzen diren gorpuei eta mozkortiei begira egoten dira, sartzen ausartu gabe. Paul Asteren liburu batean deskribatzen den herrialde arrotz bezain ezagunekoan banengo bezala sartu nintzen goizalde batean geltokian. Taxistak zerbait esan zuen bere hizkuntzan eta doluminak ematen ari zitzaidala zirudien. Atea zeharkatu eta berehala hamar tipok inguratu ninduten. Bel-durturik, labana bilatu nuen patrikan, baina txiskeroa besterik ez nuen aurkitu. «Jainkoarengan sinisten al duzu?» galdetu zidan buruan batere ileirik ez zuen tipo batek. Hasiera batean zer esan ez nekiela geratu nintzen, nire inguruan begiratu nuen ihesbide bat aurkitu nahian edo, eta orduan Juliette Binoche iruditzen zitzaidan emakume bat ikusi nuen urrutian. Bai, erantzun nuen, eta gizonak petaka bat atera zuen poltsikotik eta luzatu zidan. Gainerakoek parrak entzun nituen, eta bero ikaragarria sentitu nuen ezterraren ezezik nire larru guztian. Inguruko guztien ahoetatik sugarrak ateratzen ari ziren. «Tronpatu egin haiz, zeruaren bila etorri haiz eta betirako sufrimendua aurkitu duk». Ez nuen emakumea ikusten eta pentsatu nuen egia esaten ari zirela, ez nintzela behin ere aterako handik. Trenen ordutegiari begiratu nion, «Infernua: 6,9 eta 1 letan (expresoa). Oharra: zerurako trenak ez dira gehiagotan aterako, eta aukera garaiz aprobetxatu ez duena izorrra dadila». Petaka eskatu nion berriro burusoilari eta zurrutada luzea hartu nuen. Konortea galdu nuen eta esnatu nintzenezan parrez ari ziren guztiak. «Inozente, inozente», oiuhukatzen ari ziren umeak bailiran bazter batera seinalatuz. Telebista kamara pare bat zeuden eta langileak ere parrez lehertzen ari ziren. Altxatu nintzen, deus esan gabe tabernara joan nintzen, botila bat vodka eskatu nuen eta geltokitik atera nintzen. Beste egun batean hartuko nuen infernura tren. Lehengo taxistak aluzinatutik begiratu zidan eta ulertu ez nion zerbait esan ondoren labankada bat sartu zidan bihotzean. Erori aurretik, 'welcome' irakurri ahal izan nuen geltokiko atearren gainean.

GUERE AUKERAK

ERAKUSKETAK

Jesus Martin Benito margolariaren obrak egongo dira ikusgai Berako Kultur Etxean igandera arte, Antton Mendizabal eskultorearen lanarekin batera.

ANTZERKIA

Trokolo antzerki taldeak De-soion aurkeztuko du gaur 'Columbina enamorada' obra, arratsaldeko 8.30etan.

Kukubiltxo taldeak bere azken lana estreinatuko du Beran igandean, arratsaldeko 6etan. Antzezlanak 'Jaiotza' du izena eta Nafarroa Oinez 94ren eskutik egongo da Beran, jaiak direla eta.

Pie Juntopie taldeak, 'Ocupacion de un espacio desocupado' bere lana eskainiko du datorren astelehenean, abuztuak 8, Iruñeko Gayarre antzokian, gaueko 10etan. Nafarroako Jaialdien egitarauaren barruko ekitaldia izango da hau.

ZINEMA

Sakanako kultur zikloaren egitarauaren barruan, gazte eta helduentzat pelikula proiektzioa egongo da gaur Urdiainen. Herriko plazan izango da, gaueko 9.30etan.

MUSIKA

Kiko Veneno abeslariaren kontzertua izango da bihar Elizondan, gaueko 10etan. Kontzertu hau Nafarroako Jaialdien barruan eskainiko du.

Borrokan, ZUP, Gutariko bat, Noise Hole eta Nuevo Catecismo Catolico musika taldeek kontzertua eskainiko dute gaur Beran, gaueko 10.30etan.

Laukitik ihestaldea izango da gaur Doneztebeko Kaxerna tabernan, gaueko 11etan.

BERTSO SAIOAK

Labaienen bertso bazkaria izango da datorren asteartean, abuztuak 9. Manolo Arozena eta Jokin Sorozabal bertsolariak ariko dira bertsoan eguerdiko 13.30etatik aurrera herriko plazan.

Leitzan, datorren ostegunean, abuztuak 11, bertsoan ariko dira zineman arratsaldeko 18.30etatik aurrera Amuriza, Ibarra eta Ajuria.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

Errazegia

Sona handiko ikuskizunak urri dira alderdi honetan, eta hara joan behar etorri orduko, sozialki onuragarria omen da eta. Berdin du ikuskizunak aspertzen gaituen edo deus gutxi interesatzen zaigun. Joan behar da eta kitto. Halaxe abiatu ginen 'La Fura dels Baus' talde kataluniarra-

netan zabaldu zuten—, ez zen eserita egoterik izango, ezin zen erre, ezin ziren kartoizko kaxak ukitu, ezin zen ondokari begira, ezin zen... Debekuen ondolik, gomendioak: 'Lasai zaitez, eta dantza egin ezazu!' «Ondo hasi gaituk!» esan nuen golgorako. Gustatzen zaidana debekatu, eta batere

mezua, eta T.M.T. antzezlanean (?) ez zen horrelakorik. Ez zen ideia garbirik, baino biolentzia, odola eta borrokaren arteko nahasmendua. Eta hori errazegia iruditzen zait. Nahikoa da gizon puskek taula gainean paratu, oihuka hasi, eta odol apur bat hemendik, keinu bortitzak bestetik, pare



ren azken antzezlanak ikustera, jakinmin bezalako. «Ez duzuela inoiz ikusi? Ba, ikasiko duzue, ikasi, zer den ona!» esan ziguten sartu baino lehenago zerbeza bat hartzen genuen bitartean.

Sarrerak ere misterio guztiak zeuzkan aukeran. Atea hamarrak arte ez zuten zabaldu behar —hamarrak eta laurde-

gogorik ez dudana egin behar!

Ez dut ukatu behar ikuskizunak nire arreta bereganatu zuela ia denbora osoan. Lagun batek esaten zuen bezala, ez da gutxi, baina ez da aski, nire ustetan. Txori batek beregan dezake nire arreta denbora luzez, eta baita aurpegi polit batek ere. Baina La Furaren betiko mezua izan omen da hori,

bat tramankulu arraro paratu, eta kitto. Gehiago espero nuen, eta ez zuten eskaini. Hori bai, ordubete t'ardi pasatxo kirola egiteko eta adrenalina pixka bat botatzeko baliagarria izan daiteke. Baina horretarako ez da talderik behar. Horretarako nahikoa da Gotorlekuko belardira joan eta korrika egitea. Eta dohainik da.

ASTEKO PERTSONAIK



Miguel Morras
Txirrindularia



Rafael Moneo
Arkitektoa

Miguel Morras Sesmako txirrindulari gazteak urrea irabazi du jubel mailan, Quitoko (Ekuador) Munduko Txirrindulari Txapelketan. 18 urte besterik ez du Sesmakoak baina bere lorpen garrantzitsu honen ondoren, herritar guztien omenaldia jaso zuen Amerikatik itzuli bezain laster. C.C. Estellaren eskutik abiatu zen txirrindularitzaren munduan 14 urte zituela eta lau urte beranduago munduko txapelduna da. Hala ere, txirrindulaz gain badauka beste asmorik Sesmakoak eta UBiko ikasketak burutu ondoren, Ekonomi Zientziak ikasiko ditu datorren urtean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Denborak errango du noraino hel daitekeen Miguel Morras, baina ongi abiatu dela ezin uka.

Rafael Moneoren Meridako Museo Erromatarra 1983-1993 bitarteko arkitektura lanik hobereena dela esan daiteke. Hala erabaki du, behintzat, Santanderreko arkitektoek osatutako epaimahai batek. Rafael Moneo Tuterako da eta bere ustez iragana eta modernitatearen arteko sinbiosia da museoaren ezaugarririk funtsezkoena eta garrantzitsuena. Manuel de la Dehesa arkitektoaren izena daraman sari hau, hala ere, ez da Tuterako arkitektoak jaso duen bakarra. Baina Meridako Museoa bere obrarik gogokoenetarikoa bat izanik, esanahi berezi-beziaz du berarentzat sari honek. Iazko urtean ere Principe de Viana saria jaso zuen Rafael Moneo artistak eta Tuteran seme kuttuna izendatu zuten.

AHAZTU GABE!

MUSIKA

Kiko Veneno abeslaria Elizondan izango da bihar, Nafarroako Jaialdiek eraman baitute bertara. Urteak eta urteak besteentzako kantak konposatzen eman ondoren, iaz bere abestiak kantatzeko urratsa eman zuen, eta ongi gainera, hala uste baitute behintzat hasieratik atzean dituen entzule leialek.

'Echate un cantecito' bere azken diskoan pop, flamenko eta kantautorearen estiloak nahasi ditu eta bere estiloaren behin-betiko onarpena ekarri dio. Bere lanaren xalotasuna da bere arrakastaren giltzarria, bere ustez, eta haren bidez ailegatu da jendearen bihotzeraino.

Kiko Venenok inork baino hobeto erabiltzen ditu klabe poetikoak eta haiekin osatzen ditu auzoetako gaizkileen istorioak, grina zahar eta galduenak, eta abar. Berarekin izango da Elizondan ere, edonon bezala, Raimundo Amador, egun dagoen gitarra jole flamenkorik hoberenetarikoa bat.

jenero xumekoak

Klauns Kinski bakartia

Badakit Adelaida beste batekin dagoela eta biok etzanda daudela. Hau da nire kontsolagarri bakarra. Atariko txirrina soinatuta eta haurrek bezala ospa egin.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Otsagi

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Pirinioetara autobusean

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Nafarroako Gobernuako Turismo Zerbitzuaren ekimenez, hilaren 9, 12, 15 eta 20an autobusak izango dira Iruñetik Pirinioetara. Horrela, aipatu egunetan hiru autobus abiatuko dira —bi goizez eta bat arratsaldez— Nafarroako hiruburutik Erronkari, Orreaga, Orbaizeta, Otsagi, Leire eta Irunberrira, egun berean itzultzeko aukerarekin.

Ana Lizarraga Turismo Zerbitzuko buruak prentsaurrean adierazi zuenez, autobusak jartzeko erabakia jendearen eskaren ondorioz hartu dute. Lizarragaren arabera, «Iruñeko eta gainerako herrietako turismo bulegoetara jende ugari etorri ohi da Pirinioetara joateko moduez galdezka. Jende asko garraio arazoengatik nahi zuen lekura joan gabe gelditzen zela ikustean, zerbitzu har jartzea erabaki genuen, proba gisa».

Autobusak Iruñeko Gaztelu plazatik abiatuko dira, Iruña kafetegiaaren paretetik. Goizeko zortzietan bi autobus aterako dira eta arratsaldeko hiru t'erdietan, berriz, bakar bat. Goizeko autobusek kontrako bidea egingo dute arratsaldean. Pirinioetako 'satortxoak' izenez ezagutuko den zerbitzua 300 pezetako da. Autobuserako txartelak Orreaga, Otsagi, Garralda, Erronkari, Zangoza eta Iruñeko turismo



Otsagira egunero bi aldiz joango dira autobusak.


bulegoetan izango dira salgai. Txartelak pertsonalak izango dira, hots, pertsona bakar batek erabili ahal izango dituela. Nafarroako Gobernuako Turismo Zerbitzuak 400.000 pezetako aurrekontua izan du ekimen honetarako.

Autobusen ibilbidea honako hau izango da: Iruña, Orreaga,

Orbaizeta, Otsagi, Erronkari, Leire, Irunberrira eta Iruñea berriro. Ordutegia: Iruñean goizeko zortzietan, Orreagan bederatzia eta laurdenetan, Orbaizetan hamarretan, Otsagin hamaikak eta laurdenetan, Erronkarin hamabietan, Leiren ordu bata eta laurdenetan. Arratsaldean hiru t'erdietan abiatuko da Iruñetik,

ibilbide eta ordutegi berarekin.

Geltokiak honako hauek izango dira: Iruñean Iruña kafetegia, Orreagan errota zaharra, Orbaizetan Mendilatz aterbea, Otsagi eta Erronkarin turismo bulegoa, Leiren monasterioko aparkalekua eta, azkenik, Irunberrin arroilaren eta herriaren arteko gurutzebidea.



Paradoxak

Dirurik ez dutela eta iruindarrak ez dira oporretan joaten, eta iruindarrek ez dute dirurik oporretan joaten ez direla ahantzi ahal izateko, sos guztiak parrandaz-parranda gastatzen dituztelako. Paradoxaren paradoxa. Gauzak horrela, aurrein inoiz baino errones gehiago dabilta 'Navarra en Fiestas' Donejakue bide izpiritual berezian barrena. Baina ez hori bakarrik. Halaber, asteburuero inoiz baino jende gehiago pilatzen da foru hiriburu zaharreko tabernetan.

Egungo kinka ekonomikoak —EGUNKARIAKO kazetari ongi ordainduok nabaritzen ez badugu ere, latza, nonbait— urteotan zehar uztaile eta abuztua itsas heretzean igaro duten iruinseme-alabak uda euren jaioterrian bertan igarotzera behartu ditu, hots, hainbat iruindar erabat frustratu ditu.

Funtzioak organua sortzen duen bezala, frustrazioak sublimazio bideak sortzen ditu, eta horren lekuko izan ginen ni eta nire koadrilakook joan den asteburuan, Jarauta kaleko taberna batean. Neska polit, xarmant, fina eta itxura jatorrekoa zegoen gure ondoan. Supitoki, tipo xeble bat hurbildu zen harengana. Bere tirantedun elastiko beltza eta Mañolite zenaren pareko organua markatzen zion kolore bereko praka estuekin, prakordez leopardo tanga besterik ez ziztaion falta 'Hondartzako makarra' labelaren ordezkaririk hobereza izateko. Dударik gabe, orain arte Saloun igarotzen zituen oporrak.

Seguruenik «Saloun makarrarena egiten badut, hemen zergatik ez?» galdetuko zion bere buruari, eta horren ostean, lanari ekin zion, frustrazioa sublimatzeari alegia. Hondartzako makarraren estilorik garbienarekin astakeri sorta galanta egin zuen, eta, hau da hau, kuadilakook nazkatzeaz gain, neska liluratu, eta tabernatik harrekin besarkatuta irtetzea lortu zuen. Hori da hori sublimazioa. Eta berriro ere paradoxaren paradoxa, koadrilakobatek baino gehiagok leopardo tanga erosiko duela iragarri zuen. Ez dira inoiz Saloun izan, baina frustrazio eza sublimatzeko prest daude.

Garruze

Arrakasta bildu du feriak

LUTXI FOURCADE / BAIONA

XII. mendean sortutako Garruzeko feriak jende ugari bildu zuen joan den asteburuan Donapaleuko auzo txiki honetan. Oñiturari jarraikiz, zaldiak protagonista ziren igandean. Biharamunean, aldiz, behiak, zezenak edo zezen-gaiak ziren salgai Nafarroa Beherean fama haundia duen azoka horretan. Etxeko mozkinak ere salgai izan dira, 1754 urteko merkatu tokian 80 saltzaille baino gehiago egon baitira.

«Sekulako arrakasta» bildu zuela aurtengo feriak deklaratu zuten antolatzaileek, aparkalekuan autoak kondatuz, 30.000 jende inguru bildu zela kalkulatu zutenean. Aurten, jende anitz etorri zela Hegoaldetik azpimarratu zuten antolatzaileek, batez ere Nafarroatik. Nafarroako bezeroei dei berezia egin zie-

ten aurten feria hasi baino lehen.

Euri xorta batzuk erori arren, uda hasieratik dagoen idortea aipatu zen lehen egunean, usaian baino zaldi gehiago zeudelako salgai. «Iaz, pezeta jautsi zela eta, zaldi asko genuen saltzeko» azaldu zuen Gerard Abadien, Feriaren Batzordeko lehendakariak, azpimarratuz aurtengo idortegatik «zaldi-hazleek kabale gehiago saldu behar izan dute». Hazteko behorrak saldu ziren 8 libera kilo inguru, 1993an bezala; samalkoaren prezioa, aldiz, gora da 10-11 libera kilora.

Astelehenarekin, behi gehiago zeudela salgai adierazi zuen Abadien, «hesi berriak ezarri ditugulako plazan, behiak hobeto lerrokatzeko asmoz». Beste urteekin konparatuz, erakutsi zen kantitatea heren batez goratu zela deklaratu zuen. Nahiz eta partikularren arteko prezioak eza-



Nafarroatik jende asko hurbildu da feriara.

L.E.

gutzeko zaila den, zenbait negozioren berri jakin zen. Hala nola, behi aretxedunak 16-17.000 libera inguruan saldu ziren, bana-

ka batzuk 18.000 liberatan. Italiako aretxeek 5.500-6.000 libera balio izan dute, eta urteko zezen-gaiak 15.000 libera.

Herri literatura historia xumeeak osatzen dute, izenik gabeko pertsonaiek. Oraingo honetan Gorritiko danbolinaren pasadizoak dakartzkigu Patziku Perurena idazle goizuetarrak, haren kariaz paratu ziren bertso famatuak direla medio. Gorritin ia ezezaguna, Almandozen bada oraindik haren berri, eta bertsoak, danbolinaren istorioa eta ibilerak ongi aztertutak azaltzen dira hemen.

Gorritiko danboliña

PATZIKU PERURENA / LEITZA

Leitzako danbolinteroen kontuak biltzen ari nintzela, Miel Luis Cestau Gorritinekoak, hain zuzen, eraman ninduen Gorritiko danboliñaren kontu zaharrak aztertatzera. Hala esan zidan bere garaian: «Eztebenen bizi ziela, gure amonana anaiek, gaztetan musikera apizio izugarrie izakio, ta txilibitue nai, ta txilibitue nai... Ordun Gorritiko danboliñe famatue omen zen inguru otan, da ure il zela enteratu zienen, aren txistue erostera yoan omen zien Eztebeneko anai orik».

Orduan betarik ez nuen izandu paperak ikusteko, baina geroztik ikusi ditut, eta 1864ko Abuztuaren 5ean hila zen Gorritiko Danboliña, Azpizko Maritonen, eta Leitzako Eztebeneko Joxemartian danboliña 1851ko Azaroaren 11an jaioa. Adinik aproposena beraz, hamahiru hamalau urte, Gorritiko danboliña hil ondoren, haren ziztu danboliñak bereganatu eta berez zekarren grina betez, ziztu jotzen tajuz ikasteko. Handik lau urtera Leitzako Ingurutxojo jo zuela bada-kigu Urbitako belatsoan, arrebak Marimiel eta Atsogetietako seme Miel Labayen ezkondu zirenean, 1868ko Urriaren 12an, Baliteke hortaz, egun sinalatu hartan ere, Gorritiko danboliñaren tresna berekin aritu izatea Joxemartin; oraindik gaztetxoak, baitzen, 17 urte betetzekoak, gerora izanen zituen bezala, ziztu

danbolinak berak eginak izateko.

Baina, Gorritiko danboliñ sonatueren kontu gehiago ere banuen lehendik, Miel Luis Gorritinekoari hartua. «Bertsoak bazi-ttun ark, bedaioar batek patuk: Astoa ostu omen zioan, ta giza-joa billaka ibilkio nondik aztar-natuko zun. Bedaioak berriz, pestak elduko ta, ardoa Naparrotik ekarri bear zula akordatu emen zetzion. Guliko Bentara yoan da bere astoa artute, karga-tu do iru kantaro ardokin, ta bueltan eldu dela, Lekunberriko ortan topo eman omen dioa goardazibilek, eta astoa kendu-ta preso eraman omen zuen. Gorritiko danboliñak, ari ostutako astoa zela esaten! baño Bedaio-koak bere astoa izakio: Nere asto zar triste gaixual Ez material bi-guñal Zapzi urtian serbittu nau ta Lau ume neri egiña. Orrena dela gogor asi zat! Gorritiko danboliña.

GORRITIKO DANBOLINAREN DATUAK

Izena Pedro Antonio Gascue
Juansaras zuten Gorritiko danboliñak, eta 1784ko Otsailaren 9an jaioa zen Gorritin. Aita Juan Joseph Erasokoa zuten, eta ama Maria Cathalina Gorritikoa. Ezkondu ere, Gorritin bertan egina zen gure danboliñ sonatua, 1808ko Maiatzaren 8an, Maria Bautista Perezekin, biek hogeit-launa urte zutela. Alaba bakarra izan zuten, Maria Cathalina, ezkondu eta bederatzin urtera, 1817ko abuztuaren 30an mun-

dura jaioa. Alaba bakar hau, Katalina, eta Miguel Jose Martirena 1838ko Otsailaren 12an ezkonduak ziren Gorritiko elizan. Ezkontza zerratzeko orduan, alde batetik eta bestetik para ziren ondasunak hantxe ageri dira, biharamonen, 1838ko Otsailaren 13an, egindako eskrituran.

Azpizko Maritonen hemeretzi urtez elkarrekin bizi ondoren, aurrena ama hil zen zitaen, 1859ko Martxoaren 10an. Aita, Gorritiko danboliñ sonatua, handik bost urtera hil zen, 1864ko abuztuaren 5ean. Hantxe bukatuko ziren Gorritiko danboliñ sonatueren mundu honetako izanak. Ez ordea izenak eta omenak. Gorritin ez du inork oroitzen aspaldi haundiko danboliñ harenik. Bai ordea Azpiz-rotzen.

Azpizko Maritonen Anjel Otsanbelak esandakoak: «Gure atte zenak esaten zun, Gorritiko danboliñ ori ezkontzaz etorri zela etxe ontara. Atte ta alaba, bik etorri emen zien. Gure etxea zorpen emen zegoan ordun, da danboliñ ori etorri emen zen diru pusken batekin, da artzekodunek oartu zienen diruikin etorri zela bestea, taka taka, gaur bat, biar bestea, andik amabost eunera beste bat... beren paperakin etortzen emen zien, etxe ontatik artzekoa nola zeukan, da Gorritiko danboliñ ori, gizajoa, eman da eman ari emen zen dena, da azkenen nazkatuxe zenen, esan emen zioan: —Oaiñ bezela saiatu baziñete, ez al ziñuen kon-



Gorritiko Joanesenea. Hementxe bizitua zen Gorritiko danboliña.



Juan Antonio Seguroa, Bedaioako (Gipuzkoa) txanboliña, herriko Ingurutxo dantzariek. Honetxek atautxia zen Juan Antonio Zubillaga bertsojartzailea, Gorritiko danboliñarekin, astoa zela medio, istiluak izan zituen.



tseituko lenao're zerbate? —Bai gizona, bai! Len'e etortzen giñen, baño orroko or daon gizon aundi orrek garrotekin artute bialtzen giñuzen aurren. —Bai, baño, garrotekin ezte pagatzen zorrak, e! Etxe ontako nauzi zarra gizon aundi bet emen zen, astakillo samarra, ta zorrik ez pagatzen iñori. Baño semea, Miel Joxe emen zuen izena, ogi puske bezelakoa, ta arekin ezkondu emen zen Gorritiko danboliñen alaba.

Euntzalea emen zan danboliñ ori, arie iten aitzin zana. Gorri-

ttine ortan aitzin emen zan, ta onera etorrite peonak artu emen zittun. Erakusten aitzin emen zen, gazte mordoskan bat artute, airi erakusten aitzin emen zen. Liue itteko toki propioak bai emen zittuen, ta gero liue yo ta garbittu berriz Lamitxulok orrekaren iten emen zuen. Eunez alorren lanen, ta gabez eune iten etxen. Danboliñe joaz ariazten emen zittun gabez peonak lanen. Lan asko iñe zen danboliñ ori etxe ontan. Etxe Astotza izen dun barruti bet badu, ta ure Gorritiko danboliñe iñ emen

zun peonakin: gaztañak bota, zaborra dena kendu, ta garbitute dena txukun txukun belarretako yarri. Botatoko gaztari-ñekin ikatza ta galtziñe iñ emen zuen. Or Lezeta bideko ortan izaten omen zuen galtziñ zuloa. Lizar landare asko bazun etxe onek, eta geientsunak Gorritiko danboliñ orrek yarrik omen die. Olako lan asko iñ emen zun».


Horik guziak gogoan zeuzkan Angel Otsanbelak, baina, bada beste gertakari zelebrea, seguru aski, gaur Angel bizi den teila-tupe berean bizi zela Gorritiko danboliñari gertatua. Ingurumari guzira zabaldu zen berria, eta oraindik adineko jende askok gogoan dauzka orduko bertso batzuk. Lehen Miel Luisen aho-tan aipatu ditugunak, hain zuzen

Miel Antonio, 22 urteko mutila, eta nagusi zahararen gaitzak kutsaturik, akabo mutila belaxe. Baina, hil ondoren ere mundu honetan segitzen mutilak! Amak meza ateratzeko dirua eman omen zion apezari, baina gerra zela medio, hanka egin apezak eta, mezarik gabe gelditu seme defuntua. Handik hiru urteren burura, gerra bukatu denean etorri da apezaz atzera, hasi da beti bezala meza ematen, eta han doa elizara Miel Antonio zena-ren ama. Elizaren sarreran aita-egiteko luzatu da eskua ur bedeikatu ontzira, eta hor non aditzen duen seme defuntuaren ahotsa ur bedeikatu ontziatik es-kuia luzatuz: «zerura juteko meza baten zai nago ama». Amak larri, esan dio apezari berriz, meza ateratzeko, atera du meza, eta hurrengo jaian badao ama berriz elizan sartzera, luzatu du eskua ur bedeikatu ontzira, eta semeak busti omen zion eskua ur bedeikatuarekin, esanez: «oraintxe noa zerura ama, eskerrik asko!». Halaxe kontatu dit, hura hil zen sukalde berean bizi den Zumizketako Eujenio Sarasolak.

Seme bakarra bere sasoirik hoherenean hilda, senar emazteak alaba bakarrekin geldituko ziren etxean. Handik belaxe berriz, aita Juan Antonio hil eta, hurrena ama alabak bakarrik. Gizonik gabe gaizki zeudela ba etxean, eta zerbait pentsatu beharke zela. Hala etorriko zen Amezketako Aimeni baserriatik, etxean itzal eginen zuten gizona, Jose Ramon Sarasola, alde aurretik Patriziarekin ezkontza zerraturik. Senar emazte hauen semea zen, hain zuzen, Juan Antonio Seguroa, Bedaioko txanboliñ sonatua, 1887an Zumizketan jaio eta larogeitamabost urterekin 1983ko ilbeltzaren 19an hil zen arte guzian bertan bizitua. Hantxe bukatuko ziren, Gorritiko danboliñak astoa falta zuela medio, sos baten kulparik gabe Nafarroako Larraun aldean goriak erakutsi zizkiten ardeoketari bedaioar sonatueren mundu honetako istiluak. Azkeneko bertsoan hala esan zuen. «Pertsekuzio asko daukagu munduan bizi geranak». Bizi zela aski ez, hildakoa ere atzetik berriz gu orain!

GULIKO ALA MUGIROKO BENTAN?

Bertso hauen hiru inprimaldi aipatzen ditu Aita Zavalak. Leitzan Miel Luis Cestauk, Uitzin Buztifeko Trini Rekaldek, eta Larrekok bertso Guliko benta aipatzen dute. Aita Zavalak berriz Uliko benta dazka. Harriagarria. Eztakit nondik atera duen Uli hori. Baina bada beste kontararik ere. Bedaion, Zumizketako aitona Ramon Zubeldiak, eta Eujenio Sarasolak berak. Mugiroko bentara joan zel esan didate ardo eske, eta azkeneko honek «baño ori seguru e, seguru!» esaten zidan; eta berak utzitako bertso paper zatarioak. Joan da auzoan bertako



Eugenio Sarasola, Zumizketako ataurren. Honetxek kontatu dizkit Juan Antonio Zubillagari buruzko kontuak. PATZIKU PERURENA.

raino, tokizen edo beste deusen aipamenik bertsoetan ez azaltzea harritzeko samar ere bada. Nondik nora sortua da ordun 1866ko bertso aldiari ageri den Guliko benta hori? Nik esan behar banu, Mugiroko bentan hartu zituen Juan Antonio hiru kantaro ardo, eta aurreneko bertso aldiari Mui-roko benta para; baina gero, bigarren bertso aldiari inprimatu zenean, Beteluko Manuelaren kontaraen, Guliko benta sartu zen haren ordez, baten ez baten ere, arriskua urrutirago bialduz; bertsoan Mugiroko bentaren izena garbiko azaldu gero, arrisku biziari paratzen baitzuten bai kontrabandoan zebilten ardo saltzaile naparrak, bai ardo erole-giputzak.

Aita Zavalak Auspoan aitazten dituen argitaraldi horien guzian iturria Beteluko Manuelaren bertso aldia dela esanen nuke. Baina, Manuela hori ote zen Aurreneko aldir bertsoak para zituen? Honela dio Aita Zavalak: «guzak orrela ote diran

zerbait dudan egin ditek. Al-tzoko Imazen itxura artzen diogu guk beintzat sail oni». Hala hobe. Napar aldean ikusi zituenak ikusirik, ez baitzen Beteluko emakume batengana joanen Juan Antonio bedaioarra, hangotarrak parragarri uzteko bertsoak para ziztan eskatzera, auzoan bertan zeukalarik giputz bertsojartzaile sonatua.

Beteluko Manuelak, inolatan ere, lehendik buruz zekizkinak parako zituen paperean, baina aurretik beste nonbaitetik ikasiak behar zituen. Izan ere, haren bertsoaldia Tolosan 1866ko azaroaren 5ean inprimatu zenerako

hendik astoa Gorritin ezagutu zutenengana jo zutela iritzi eske. Gorritiko danboliña 1838an etorria zen Azpirotzera, eta Juan Antonio 1844an ezkondua. Tarte horretakoak behar dute bertso horiek, nere kontuak oker ez badira joan.

TOKIAN TOKIKORA EGOKITZEN


Auspoa sailari sumatzen diodan hutsik handiena hauxe da: bertsoak lekuan lekuko historian eta geografian ongi txertatu gabe gelditzen direla. Lan ikaragarria da Antonio Zavalagaiten ari dena. Baina, hark urrutira bildutakoak, tokian tokiko garenok, bertan miatu, zuzendu eta geure lurreko ariman ongi errotuko bagenitu, asko indartuko genukeela iduritzen zait tokian tokiko herri literatura. Hartara, hurbiltasunez eta sinesgarritasunez sorgindurik ernatuko bailiguke historiak geure hankapean loak hartutako ha-maika gertakari eder. Berririk bizi izan banitu bezalaxe ibili ditut, kontu honen gertalekuak, Bedaioko Gurbillaundin baserriatik hasi eta Guliko bentaraino. Hango Beheko benta zaharberri-tuan hartu ditu hiru kantaro ardo Juan Antonio Zubillaga bedaioarrak; asto gainen para, eta txurrit batzuk eginez, txoria baino pozikago heldu da gizona, lasterbide zaharrez Irurtzun, Urriza, eta Arrutizen honuntza.

Baina ez. Demagun hori gezurra dela, eta Mugiroko bentan hasten dela historiaren buelta. Hemen hartu ditu hiru kantaro ardo Juan Antonio Zubillaga bedaioarrak, eta txurrit batzuk eginez, txoria baino alegerago heldu da mutila Lekunberri honuntza. Pagolletako gainean (oraintsu arte Malloak dantzalekua izandu eta orain Malloak txiki denekoan) alto bota diote lau galdadunek. Gorritiko danboliña gogor hasi zaio astoa lapurtu diola esaka. «Lehendabiziko hitzean ginen astoaren dis-kordian, hasarreuta gero borroka kamioren erdian». Han ardaia jo, eta Azpizko kartzelara daramate Juan Antonio, sos baten kulparik ez duen mutila, bere asto, ardo eta guzti. Azpizko herrian soinean daraman arropa ez beste guzti kendu, eta kartzela sartu dute. Han pasako ditu egun batzuk, itzalpe ilunetik herriatzen marmarrak adituz: «Hor gagon hori, lapurra omen da» zen donbertazio hotsa.

Handik Lekunberriera jukkada hurrena. «Lekunberriko al-kate jaunak joateko Gorritira». Auzia hautsi nahian dabilta her-ritik herrira. «Zer gizon kasta ote naizen ni, jende guziaz begi-rra». Desondrak eta desprezioak ematen ibili dira. Baina azken-ean «paltak norenak izandu di-ren hementxe azaldu dira». Gorritin isildu da danboliña. Nik ere Gorritin hasi nuen kontu honen auzia, hango danbolinari eragi-nez, eta Gorritin bukatuko dut, hango danbolina isilduz.



XAKEAN




'Iruñeko Hiria' torneo itxiaren 7. jardunaldiko partida, 1994ko urtarrilaren 3an jokatu.

Felix Izeta, 2.510 ELOkoa (Euskal Herria)-Jean Luc Seret, 2.450 ELOkoa (Frantzia).

1.d4,d6; 2.e4,Zf6; 3.Zc3,e5; 4.Zf3,bZ-d7; 5.Ac4,Ae7; 6.0-0,0-0; 7.a4,c6; 8.De2,b6; 9.Gd1,Dc7; 10.d5,d5; 11.Zd5,Zd5; 12.Ad5,Gb8; 13.Ga3,Zf6; 14.Gc3, Dd8; 15.Ab3. Ikus koadroa. Orain arte berdintasuna izan da nagusi, beltzak atzeratuegoak badaude ere. Une honetan saltsa izatearen alde jokatu dute beltzek. 'Ag4' lasaiagoa izan zitekeen, baina... 15...Ab7; 16.Ze5,Ze4; 17.Zc6. Zer egin? Agian, horrela jokatu: 17...Zc3; 18.Ze7 xa,Eh8; 19.c6,Ge8; 20.Ge1,d5; 21.c4. Ez, ez. Txuriek eraso egiteko aukera eta puntu bat gehiago lortuko lituzkete. Hobe, jokia hainbeste ez nahastea.

17... Ac6; 18.Gc6,Zc5; 19.Ad5. Damaren peoi hori ahul dago. Alfila oso ongi kokatu da. Eta gainera, alfil bikotea. Nahas-mahas horretan, txuriak hobeto atera dira. 19...Dd7. 'Za4' jokatu izan balute, 'Da6' jokaldiarekin barneratuko ziren txuriak. 20.b3,Eh8; 21.Ab2,f5; 22.Af3,bG-d8; 23.a5. Ongi egina. 'Gc5' mehatxua dugu. 'Aa3' gerorako ere. Beltzek peoi bat galduko dute. 23... Af6; 24.Af6,Gf6; 25.b6,b6; 26.Gb6,g5; 27.h3,Gg8; 28.dG-d6. Zuhurtasuna ez dute erabili beltzek. Eta orain partida utzi beharrean dira, 'De5' jokaldia dela eta.

Hankaz gora!



Enea Andueza

(BARAÑAIN)

Artega zegoen eta bere aurpegi zimirrak etengabe ari ziren mugitzen. Aurpegi hura ez zen mutil koxkor batena, ez, aspaldian gaztetasuna igarotako gizon heldu batena baizik.

Ilea erortzen hasi zitzaion dagoeneko eta aurpegiaren goikaldean zeuzkan bekain iletsuak bezala, oraindik zutik zirauten ileak urdintzan hasi zitzaizkion. So eginez gero menpean uzten zintuzten begi marroiak, tabakoaren ondorio ziren marra mehexka gorri aunitzez zeuden berterik. Sudur luze eta lodi batek apaintzen zion aurpegia eta guziz lehorturik zeuden

ezpain meheek aho lizun eta heze baten sarrera osatzen zuten. Egunean zehar kendu gabeko bizarra zetzan ur eskasez goizean garbituriko aurpegian, orain nagiak ezin kendu malakarrez zegoena. Distantzia normaletik begiraturik, guzi horrek aurpegi triste eta larritu bat isladatzen

zuen, eta horrekin batera aurpegi triste eta larritu bat isladatzen zuen. Bere gorputz mehea baldarrik jantzirik zegoen, bakero zahar eta kamiseta berde batez, oinutsik zegoen eta oinaren orpoa batez ere, belztuta garbiturik gabeko lurrean zegoen zikinkeriaz.

Arestian aipaturiko lagun hau uneoro ari zen mugitzen, behar beharrezkoa zuten zerbait bilatuko balu bezala. Eta lehenago txukundurik egona zela zirudien gela, orain hankaz gora jartzen ari zen. Kaxoia behin eta berriz itxi eta irekitzen zituen bakoitzean hiru aldiz gu-

txienez eta pasada bakoitzean, orriak azkarki begiratu ondoren, nazka haundiko aurpegia jarriz eta esku dardartiez hartuz, beso mehe baina gihartsua luzatu eta airean irauli egiten zituen, gelaren alde batean sakabanatzen ziren bitartean. Eskumuturrean zeraman erloju transkil bat, minuturo begiratzen zuen gauza zen, ordu zehatz bat itxarongo balu bezala.

Eta minutu eder horien barnean zeuden hirurogei minutuez baliaturik, gela nahastu hartan zeozter bilatzen jarraitzen zuen. Mutu eta txintik esan gabe gela erdian zegoen mahaia, amorraren amorruruz hanka batetik heldu eta barnean zuen gorrotoaren indarra ateraz, gelatik at egotzi zuen. Txoko guziak nahastu zitue-

nean, ezker aldean utzirik orrialdetaz oroituz, euren gana hurbildu zen... hauek belar metak bailitzan lurrean zeuden eta gehiago pentsatu gabe lagunak, ura izango balitz bezala murgildu zen. Ordu laurden luze batez egon zen itsaso zuri hartan, orrien hotsa soilik entzuten zelarik.

Momentu batez iziltasun orokor bat nagusitu zen, harik eta, igerian zebilen laguna, eskuetan orri bat zuela eta belarririk ertz batetik bestera heltzen zitzaion irripa eder bat zuelarik atxikitzen gelatik irten zen arte. Sukaldera iritsi zen, eta sukaldea gela ez bezala txukundu eta garbitu gabe zegoela nabari haundikoa zen. Jadanik usteldurik zeukan egurrezko aulki batean eseri eta denboraren poderioz xamurturik zeuzkan oinetako batzuk jautsi zituen. Aurkitutako orria, karpeta antzeko bi gainazal moreen artean sartu eta etxetik irten zen.



Moralak eta Nafarroako Foru Nagusia

Harrigarria bada ere, ezkondu gabe larrutan ibiltzea ez zen delituztat hartzen Nafarroako foruetan. Lizarrako foruan esaten denez, 'et si aliquis de populatoribus aliqua femina facia fornicationem voluntate mulieris, non det calumniam, nisi fuerit maritata' ('hiritarren batek emakume batekin larrutan ibilitakoan, emakumeak nahita, ez du isunik pagatu behar izango, emakumea ezkonduz gero'). Voluntate mulieris hori da baldintza bakarra. Ezkondu izanez gero, alduteriotzat hartzen zen eta hori beste kutxa bati zegokion.

Prostituzioa beti legetik at ibili da, nahiz noiz behinka monastegi izeneko etxe eta ostatuetan ihardun

agerian. Monastegi horiek ez dute zer ikusirik elizarekin. Goi mailako putetxeak ziren eta hain erresebatuak ziren non monastegiak zirela ematen bait zuten. Aborto, sodomia, basakeria eta homosexualitateaz ez da ezer esaten, eta alargunen iharduera sexualari buruz, berriz, luze mintzatzen da. 'Muger yfanzona biuda non aviendo creaturas si fiziera putage et se enpreyna'. Ikus daitekeenez, legegizonak kezkatzen zituen ondasunen joan-etorria zen. Emakume alargun aberatsa, seme-alabarik gabekoa, haurdu geratuz gero, ondasunak legetik at sortutako pertsona batek irabaz zitzakeen, eta hori ez zen zilegi. Halakoetan

JUANTXO URDIROZ



Ez usteak zure atean joka

Etxe batzuk goi mailako putetxeak ziren, eta hain erresebatuak non monasterioak ematen bait zuten.

senideek salatu behar zuten emakumearen iharduera eta ondasunik gabe geratzen zen.

Adulterioaz ere luze mintzatzen da. 'Todo ombre casado que a su muylter tiene en el termino de la villa, non debe iazer sino es con eylla, et debe iazer a menos de bragas'. Esaldi horren bigarren parteak ('iazar a menos de bragas') buruhauste franko eman die iker-tzaileei. Irakurleak nahi duena pentsa dezala. Garbi dagoena zera da, senarrak maitaleak in fraganti harapatuz gero ohean berean akaba zitzakeela. Hala ere epailearengana afera eramateak bazuen bapateko irtenbide horrek baino alde interesgarriagorik, epaileak legez gizonazko maitalearen ondasunak senarrari eman bait ziezazkiokeen. Lizarrako foruetan, berriz, emakumezkoen eskubideak askoz ere gehiago errespetatzen dira. Ho-

na hemen foruaren itzulpena. 'Bere emaztea etxean zein beste leku batean gizon alproja batekin harapatuz gero, senarrak maitalea akaba dezake, inongo zigorririk gabe (...) baina ezin du bere emakumea hil, baizik eta epailearengana eraman eta nola aurkitu zuen esan'.

Baina ohi denez, bereziki tratatzen den gaia ondasunen tratamendua da. Adulterioa eta gero sortutako seme-alabek ez zuten inongo eskubiderik etxeko ondasunak banatzen. Aitak edo amak ezer utz ziezazketen, baina ez legeak aginduta, haiek propio nahita baino. Luis del Campok esaten duenez, hauetako asko eta asko elizaren arrimora hurbildu ziren, bizimodua hor izateaz gain, beraien guraoen gehikeriak oititzez garbi zitzaketela pentsatzen bait zuten.

Oinez eta bizikletazko ibilbideak' izenburupean, Baztan, Bidasoa, Malerreka eta Bortzirietan barna hamabi ibilbide argitaratu ditu Bertizko Partzuergo Turistikoak euskaraz. Gainera, herri bakoitzeko ibilbidea markatu dute bisitariak, bertako lekuri ederrenak eta bitxienak ezagutu ahal izateko. Orain dela bi urte jaio zenetik, 'Bailara lasai' hauetako turismoa garatu nahi izan du partzuergoak.

Lasaitasunaren apustua

EDURNE ELIZONDO / IRUÑEA

Bailara lasaiak badute lasaitasunaz gain bestelakorik. Bertizko Partzuergo Turistikoak argitaratu dituen 'Oinez eta bizikletazko ibilbideak' badira horren lekuko. Baztan, Bidasoa, Malerreka eta Bortzirietan zehar 12 ibilbide egiteko aukera izango dute bertara hurbilduko diren bisitariak. Batez ere natura, euskal kultura eta ohiturak maite dituzten euskaldunentzat argitaratu dituzte ibilbide hauek.

«Ibilbide hauen bidez bailara hauetako turismoa bultzatu nahi dugu» dio Xabier Ollok, «hori baita gure helburua». Bailara lasaien funtsezko ezaugarria, izenak azaltzen duen bezala, eskaintzen duten lasaitasuna da baina horretaz gain, «txokorik ederrenak, paisaiak, natura eta leku historikoak ezagutarazi nahi ditugu». Jendeak inguruan dagoena ezagutu behar du Xabier Olloren hitzetan, «eta Bertizko Partzuergoaren lana da inguruan dagoen hortara ailegatzeko bidea erakustea». Xede horrekin argitaratu dituzte ibilbide hauek.

Hala ere, zonaldeko ezaugarriak kontuan hartuz, turismo neurtua bilatzen da, ez nolanhikoa. Turismo neurtu horren arrazoiak azaltzen ditu Ollok: «Gure zonaldearen ekonomia aldatzen ari da. Hau da, nekazaritzaren egoera zein den denok dakigu. Lehen hamar pertsonak egiten zuten lana gaur batek egiten du. Industriari dagokionez, Lesakako Laminaciones da lan-tegirik garrantzitsuena eta gaintzakoak hari begira daude. Zerbitzuen arloan, berriz, denak oso txikiak dira. Gainera, denda asko mugaren inguruan eraiki dira eta Dantxarinea edo Ibardingo bentak honen adibide argiak dira. Gaur egun mugarik ez dago eta jendeak gero eta gehiago kanpoan erosten du, Donostia, Iruñea edo Baionako denda handietan».

Egoera hau aztertu zuen Bertizko Partzuergo Turistikoak eta agertzen ziren hutsuneei erantzun bat emateko asmoz eta baze goena garatzeko asmoz, landa turismoa bultzatzea erabaki zuen. «Turismo honek, hala ere, zeregin zehatza izan du, aurretik

azaldutako egoera kontuan hartuz. Hau da, gure helburua turismoaren bidez zonalde osoko ekonomia bultzatzea da. Dirua sektore guztietara ailegatu behar da». Xede hau aurrera ateratu ahal izateko, hamaika plan sektorial egin zituen partzuergoak. Azpiegitura, errekurtso turistikoak, ingurugiroa, zerbitzuak eta heziketa hartu dituzte kontuan, besteak beste.

Turismoa, beraz, ekonomia bultzatuko duen motore izango da Olloren ustez. «Jendea gure bailaretara etortzen bada, bertako produktuak erosiko ditu, esnea, gazta, barazkiak, eta abar. Modu honetan, turismoak ezezik, nekazaritzak ere eskuratuko ditu irabaziak».

Bertizko Partzuergoak garatu nahi duen turismoaren beste ezaugarri bat naturarekin duen lotura eta harreman zuzena da. «Gure natura erabili baina gorde eta zaindu nahi dugu ere». Azken urteotan landa turismoak gorakada nabaria bizi izan du eta gorakada horren abantailak aprobetxatu nahi izan dituzte Bertizkoak. «Baztan, Malerreka edo Bortziri aldera hurbiltzen den jendeak natura bilatzen du. Lehen hilabete osorako joaten zen jendea hondartzara oporretan. Gaur egun, nahaiago dute mendira eta astebeterako joan». Bertizko Partzuergoaren proiektuak izan du bai oihartzunik eta Nafarroan beste bi partzuergo dauka sortzeak: Plazaolako eta Pirinioetako. Antza denez, indarrak batzea da modurik hobereana lan egiteko eta Bertizko esperientzia ikusita hala dela baieztatu daiteke.

Bertizko Partzuergo Turistikoak orain dela bi urte sortu zen, 1992ko abenduaren bukaeran. Lehendik, bailara hauetako jendeak zuen asmoa eta ideia besterik ez zen, baina gauzatu, eta halaxe sortu zen partzuergoak. Gaur egun, hemeretzi udal eta sei profesionalen elkartekoak dira bertako kideak eta denen artean, elkarlanean, aurrera eraman dute hilabete hauetan zehar partzuergoaren proiektua. Olloren ustez «herritarrek sortu dutelako» du hainbeste arrakasta Bertizko partzuergoak, «bakoitzak berea defenditzeko egiten baitu lan».

Eta lan asko, antza denez, ia ez aurrean ere partzuergoak lo


12 PR / NA 104

BERTIZ OINEZ ETA BIZIKLETAZKO IBILBIDEAK

MENDAUR

BERTZUERGO TURISTIKOAK CONSORCIO TURISTICO

Bailara lasaiak




6 PR / NA 7

BERTIZ OINEZ ETA BIZIKLETAZKO IBILBIDEAK

XORROXIN

BERTZUERGO TURISTIKOAK CONSORCIO TURISTICO

Bailara lasaiak




7 PR / NA 101

BERTIZ OINEZ ETA BIZIKLETAZKO IBILBIDEAK

BASABURUA

BERTZUERGO TURISTIKOAK CONSORCIO TURISTICO

Bailara lasaiak




9 PR / NA 100

BERTIZ OINEZ ETA BIZIKLETAZKO IBILBIDEAK

DONAMARIA

BERTZUERGO TURISTIKOAK CONSORCIO TURISTICO

Bailara lasaiak



Bertizko Partzuergo Turistikoak euskaraz argitaratu dituen 'Oinez eta bizikletazko ibilaldiak'.

egiteko dituen 1.200 lekuak bete egin baitira. «Uda partean Madril eta Kataluniatik dator jendea, batez ere. Asteburuetan eta neguan, berriz, bertakoak, nafarrak dira gehienbat datozenak. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia aldetik, hala ere, franko etortzen dira. Jendeak kalitatea nahi du eta hori aurkitzen dute hemen. Agintzen dieguna jasotzen dute». Hori da, hain zuzen ere, bai-

lara lasai hauek duten irudi onaren giltzarria, bere ustez.

Eta irudi hori zaintzen ahalegintzen dira partzuergoko kideak. Asmo horrekin argitaratu berri dituzte egun hauetan bailarako herritarrei eta bisitariari eskaintako bi liburuskak. Bertako biztanleei zuzendutakoak 'Inguruarri begira' du izena eta bakoitzak bere herria zain dezan aholkuak ematen ditu. 'Ongi etorriak

bailara lasaietara' da bestea eta bisitariari zehazki zuzendutako aholkuak jasotzen ditu. Sua non piztu eta non ez, ibaiak nola zaindu eta bestelako aholkuak aurkitzen ahal dira bertan eta gainera, herri bakoitzeko leku eder eta bitxiei buruzko informazioa eskaintzen du. Bailara lasaietara hurbiltzen direnek, beraz, badute zer egin eta zer ikusi.

«Nahiago ditut talde txikiak»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

Uztailaren 24an, Baztanen jokaturako lasterketan, Euskadiko Afizionatuen lasterketa eskuratu zuen Igor Flores urdiaindarrak, azken hiru kilometroetan eraso egin eta gero. Txapela garrantzitsu horrek profesioalarako atea zabalduko dion esperantza dauka orain 20 urteko txirrindulariak.

EGUNKARIA.— Nola izan zen lasterketa? Dena nahi bezala atera zen, edo ustekabea izan zitzaizun?

IGOR FLORES.— Lasterketa oso gogorra izan zen, mendate asko zeudelako, eta baita jende asko ere. Gainera, oso talde fuerteak daude, eta Otxondo igotzen ihesaldi bat izan zen. Hor sartu nintzen, eta azkenean hiru kilometroetan erasoari ekin eta irabazi nuen.

EGUNKARIA.— Hiru urte daramatza afizionatuetan. Hurrengo urtean profesioalarako?

FLORES.— Oraindik lasterketa asko daude, eta asko irabazten baditut, lekuren bat izango dut, baina oso zaila da. Jende asko dago hor aurrean, eta jende gutxi pasatzen da profesioalarrera.

EGUNKARIA.— Urte ona izan da nafarrendako, Euskadiko hiru txapel irabazi dituzuelako. Aurtengo emaitza onak dira soilik, edo aurreko urteetan ere sumatu da bilakera hori?

FLORES.— Aurten jende on asko dago hemen, eta, gainera, zortea izan dugu. Oso ondo ibili gara. Talde handiagoak egin dira Nafarroan, aurrekontu handiagokoak, eta jende asko pasatzen da jubenetatik. Horrela, beti badago norbait ondo ibiltzen dena, eta aurten ondo atera dira gauzak.

EGUNKARIA.— Talde sendoenak Banesto eta zuek izango zarete.

FLORES.— Banesto beti ibiltzen da hor, aurrekontu handia eta kanpoko jende asko duelako. Guk aurten aurrekontu handiagoa izan dugu, eta prestaketa ere oso intentsiboa egin dugu.

EGUNKARIA.— Lehen beti ba-



Igor Flores, lasterketa irabaztean.

DIARIO DE NAVARRA

ziren bi edo hiru talde —Kaiku, Banesto, Baque— dena menperatzen zutenak, baina orain ematen du dena banatuago dagoela. Hori ona edo txarra da?

FLORES.— Gipuzkoan eta Bizkaian talde gehiago egon dira beti, eta jende gehiago pasatzen zen. Nafarroan, aldiz, bi edo hiru talde ziren, eta zailagoa zen. Oraindik Gipuzkoan askoz jende gehiago dabil lasterketetan, baina garbi dago onena dela talde asko izatea, horrela betikoek ez dutelako irabazten. Lehen Kaikuk irabazten zituen karrera asko eta asko, eta orain oso berdinduta dago. Aukera asko daude horrela.

EGUNKARIA.— Afizionatuetan beti izan da asko nabarmendu den jendea, lasterketa ugari irabazitakoa, baina gero profesioalarako oso zaila egingen zaie irabaztea. Hain handia da jauzi hori?

FLORES.— Oso handia. Beste prestaketa bat dago profesio-

«Taldea handietan beti badago bat irabazteko, eta besteak laguntzeko daude. Horrela ez dago aukerarik, bigarren mailakoa zara».

naletan, eta jauzi hori asko sumatzen da.

EGUNKARIA.— Eta zer iruditzen zaizkizu Javier Lezaun, Xabier Lazpiur edo Aitor Garmendiaren kasuak? Dena irabazi zuten afizionatuetan, baina gero, profesioalarako, ez dute beraiengandik espero zena eman.

FLORES.— Denetarik dago hor. Zorte txarra izan dute batzuek. Lazpiur, adibidez, oso ona zen afizionatuetan, eta gero bi urtez egon da lesionatuta. Akaso dena eman zuten afizionatue-

tan, eta gero profesioalarako geratu dira ezinean. Baten bat ere erre egin dela uste dut. Santi Crespo altsasuarra ere oso ona zen afizionatuetan, baina hor dago, ez du ezer egin.

EGUNKARIA.— Eta beldurra ematen du jauziak?

FLORES.— Beldurra ez, errespetua.

EGUNKARIA.— Afizionatuetan badago profesioalarako baino lehia handiagoa, eraso asko eta... Zuen artean hain garrantzitsua da irabaztea?

EGUNKARIA.— Maila oso berdintsua da, eta irabazteko edozer gauza egin behar duzu. Horregatik daude hainbeste eraso.

EGUNKARIA.— Gaur egun profesioalarako erabateko nagusitasuna dauka Miguel Indurainek, eta badirudi Banestora joaten den jendea bakarrik berari laguntzeko joan daitekeela. Ez dagoela, alegia, jendea lasterketak irabazteko. Hori zuendako txarra izango da.

FLORES.— Talde horietan badago beti bat irabazteko eta besteak laguntzeko, eta horrela ez dago aukerarik zerbait egiteko. Nik nahiago nuke talde txixieagoa, aukerak badi-tuzulako. Baneston eta horrelako taldeetan beti bigarren mailakoa zara.

EGUNKARIA.— Aurten sortu da, hain zuzen ere, Euskadi taldea, afizionatuetatik pasatzen direnei aukerak emateko. Zer iruditzen zaizu ideia?

FLORES.— Oso aukera polita da. Etxean zaude eta gainera baduzu aukera zure gauzak egiteko. Oso garrantzitsua da talde hori.

EGUNKARIA.— Urria aldera amaitzen duzue denboraldia. Zer espero duzu? Oraindik zerbait irabaztea?

FLORES.— Oraindik lasterketa garrantzitsuak gelditzen dira, itzuliak eta guzti, baina niri egun bakarreko lasterketak gustatzen zaizkit. Itzulietan oraindik ez naiz oso ondo moldatzen, luzeegiak egiten zaizkidalako. Baina badut asmoa zerbait gehiago irabazteko.

Igor Flores

TXIRRINDULARIA



SOSLATA

Profesionalak gogoan

Urte ona izan da Nafarroako txirrindulariendako, ez bakarrik Indurainen denboraldiarengatik. Aste honetan bertan Miguel Morras sesmarrak eskuratu du Munduko Jubenetako txapelketa, eta, afizionatuetan, Euskadiko hiru txapelak ekarri dituzte nafarrek —taldekako erlojupekoan, banakako erlojupekoan, eta fondoan—. Ospe handiko azken proba honetan Igor Flores urdiaindarra nagusitu zen, eta, horrela, urtero lortu duen markari eutsi: denboraldiko bizpahiru lasterketa, «eta postu on asko», berak dioten bezala. Gogor ari da entrenatzen egunotan denboraldia amaitu aurretik zerbait gehiago irabazteko, hori izan daitekeelako bidea profesioalarako aitzeko. Afizionatu guztien ametsa eskuratzeko, alegia.

NIKIJATOR

© Zaldi Eroak

